

KONTROL MOZIOA

KARLOS I.go BIZIKLETA APARKALEKUA DELA-ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Gipuzkoako Foru Aldundiak, Amara Berriko bizilagun askoren eskaerari erantzunda, Karlos I.go zubibidean egokitze lanak burutu zituen, tartean lur-gainazaleko zebraidea eginaz eta lurrazpiko pasabidearen puntu kritikoa deuseztatuz. Hori dela eta, lurrazpiko pasabidearen erabilpena ez da gaur egun beharrezkoa, eta aurreko Udal Gobernuak bizikletentzako lurrazpiko aparkaleku automatizatu baten bidez berrerabiltzeko hautua egin zuen, eta berau publikoki aurkeztu. Gogora ekarri behar da gaur egun 7.000 aparkaleku soilik ditugula hirian, eta egunero-egunero halabeharrez zuhaitz zein hiri-altzaritan giltzatu behar izaten dituztela donostiar askok.

Proiektu hura osatu daitekeen ala ez eztabaidatik harago, gaur egungo Udal Gobernuak kide batek azaldu zuen 200.000 euroko aurrekontuarekin bizikleta-aparkalekuaren egitasmoa atzera bota eta pasabidea lurperatuko zuela. Adierazpen hauek kontraesana sortu zuten auzoan, aurkako iritziak ere bai, zenbait eragileren aldetik, eta zentzu berean, EH Bildutik gobernuak interpelatu genuen erabaki honen zergatiaren inguruan.

EH Bilduren ustez, eta zenbait auzotarrek eta eragilek ere eskatzen duten moduan, posible da Karlos I.go pasabidean mugikortasun iraunkorra bultzatuko duen azpiegitura hau eraiki eta, era berean, espaloi eta espazio publikoaren berreskurapena egitea, adibidez, Catalina de Erausoko sarbidea itxiz.

Azaroaren 16ko batzordean Udal Gobernuak ekimen honen inguruko inongo xehetasunik eman ez zuenez, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

- 1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari alde batera utz dezala Karlos I.go pasabidea lurperatzeko egitasmoa.
- 2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari pasabidea berrerabili eta lurrazpiko bizikleta-aparkalekua eta espazio publikoaren berreskurapena uztartuko dituen ekimena aurrera eraman dezala bertan.
- 3.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egitasmo honen inplementaziorako bidera ditzala beharrezko partaidetzarako mekanismoak.

Donostian, 2015eko azaroaren 20a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia